

Bermeoko arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa (II)

Eneko Barrutia

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala
barrutia5@euskalnet.net

Abstract

This is the transcription of a recording made from a fisherman from Bermeo, in order to enrich the corpus of popular Basque language.

Laburpena

Herriko euskararen corpusa gehitu guran, Bermeoko arrantzale bati egineko grabazio baten transkripzioa da berau.

Keywords: transcripts, the variety of fishermen, oral corpora, Biscayan Basque.

Hitz gakoak: transkripzioak, arrantzaleen hizkera, ahozko corpusa, bizkaiera.

1. Sarrera

Herriko euskararen corpusa gehitu guran, Bermeoko arrantzale bati egineko grabazio baten transkripzioa da berau.

2000. urtean argitaratu nuen Bizkaiko arrantzaleen hiztegia. Léxico marineru vizcaino liburua. Liburu horretan Bermeoko hainbat lekuko izan nuen eta eurretari bat Alejandro Markaida izan zen, 1926an jaioa. Markaidari hogeita bi ordu inguru grabatu nizkion eta berarekin izaneko bigarren grabazioaren edo bigarren orduaren transkripzioa da honako hau. Grabazioaren data 1990eko otsailaren 6a da.

Arrainen gaineko galdeketaren jarraipena da. Baxurako patroia izanekoa da Markaida eta bere ofizioko arrainak ondo ezagutzen dituen arren, beste batzuk ez dakizki edo ez ditu ondo ezagutzen, arrastan atrapatzen direlako edo kostakoak direlako. Liburu bateko argazkiak erakutsi nizkion arrainak identifikatzeko eta artikulu-liburuetatik ateratako Bermeoko berbak proposatu nizkion, Mundakako arrantzaleengandik jasotako beste izen batzuekin batera. Hurrengo grabazioetan denetari arloak lantzen dira, ez arrainak bakarrik: itsasontzi motak, apartoiak, sareak, eguraldia eta abar.

Artikulu honen helburua bikoitza da. Alde batetik, arrantza-mundua aztertu nahi duenarentzat lagungarri izan daiteke. Bestetik, eta hauxe da nire helburu nagusia, herriko euskararen corpusaren lekuko izan daiteke. Corpus hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta errazago atera ahal izango ditugu denetari ikaskizun eta ondorioak.

Grabazioan entzuten den guztia transkribatu dut, bai informanteak esanekoa, bai neuk esanekoa. Neuk esanekoa letra etzanez ageri da eta lekukoak esanekoa

letra beltzez. Batzuetan parentesiak erabili ditut, parentesi barruko testua ez dudala hain argi ulertzen adierazteko. Benetako dokumentua grabazioa bera da eta argitaratzen denean hobeto ulertu eta zuzendu ahal izango da parentesien esangura.

Han-hor-hemen berbaren baten gaineko ohartxoak ipini dut. Gehienak hizkerari dagozkio, eta gutxi batzuk esangurari edo gaiari.

Aikomen orain urte batzuk Alejandrok eta biok edukiko elkarrizketa.

2. Alejandro Markaida (1990-II-6)

2.A.

(e aras da onantx) ibilli

ondo datortzu oin? ero..

bai, seukusunien¹

se auntxek allega basara ba

es, seukusunien, bai, bai, estakoo..

entzun dot eiñdxune ta..

áskorik² estot, (oiñ eskero) esto pentxaten. Neuk estaitx gidxau, iru-lau igual dxakingot baye..

a berbak eta orrek..

bai arrañen serak e, gitxi (oiñ eskero). Onek dxakitxen daue gidxau, esan txut (beñola

¹ Seukusunien = zeuk gura dozunean.

amen), arrastan (dabiltxesenak), orrek ataraten dauiles e arrañe be bariaue gidxau, klase asko ta gidxau, ba, arek dxakitxen dauie obeto

suk esu esetuten iñor arrastan ibilldxenik?

bai, bai, esetuten dot, Bermion, bai, esetuten dot, bai

diñot pregunte batzuk eitxeko

bai, bai, bai.. Bai esango txat, bai, bai, bai, esango txat. Da neuk omongo txut e beran diresiñue, e? Oseake, berakure badau, bai, bai. Bai Bermion asko deus olan arrastan da ibillikuek

jubileta badau obeto se olan estako

bai, bai, jubileta, bai, bai, bai, bai, bai jubi- esan bi (deu) ba jubileta dauena, seitzik e suk e bi sunien ba bera biarrin dauelakon edo, bai bai

olan arrastan ibilldxen bat ero

bai, arrastan dabillena ba, beti dako... arrañe ata(ra)ten dauiles, arrain klase gidxau, bariau gidxau, ba, beti dxakitxen da gidxau. Guk e, se guk ibil-, ibil garie beseuten, da atunetan. Klaro gero atrapatzen (diseniari ..) gero arrain gidxau, tximinoitzen bes enai ibilli esta? baye beti dxakitxen da, baye ostantxin e

bueno mariñeru esan es arren, an bueno

Bermion ero Mundakan ba jentik badaki, asko ta asko

bai, bai, (askok) dakidxie, bai. Batzuk, sarri mariñerupaiño gidxau batzuk. Oseake, alturekuperarik bajurekuk batzuk e gidxau, dabiltxesenak e orretan-da. Guk gero bakisu, gero ni nabegaten ibil nayelakon, da gero oiñ e jubileta, orre danai lárkata. Da astu itxen dis, astu edo

semat urte dakosus Alejandro?

nok? (Nik) irutairu³

da biarrerako dxakitxeko ta

² arrunta ez den azentua, adierazkorra.

e? Irutairu.. Ya askanetan

se igual gastiek estauie dxakitxen orrenbeste, igual ukusten da erri baten, igual gastiek ya isen batzuk estakidxie, da

a bai, bai, da sarrapai, bai, bai. Gaurko gastipe es pentxa dxakingo dauinik. Onek arrañen isenak gidxen-gidxen dxakin, ba aulan, arrastan ibillikuek, e? Da, urte asko arrastan ibillikuek, bajuren ibil bada ba arrastan ibil bada ondiño obeto. Bay⁴ bajureko arrañek, esties atune, beseue, txitxarruek etaa kálakoo arrañek. Arrastan barrís ba, barbánek, takártak, ataraten dauie ba arrain klase asko, bai. Da guk arrastako arrañeken⁵ isenik dxakin be-stai nik

asko entzun su

entxunde edo aulan ostantxin es

onek esties arrañek bueno baye itxosoko gausie dales e?

bai, bakitx e nik esango txut, oiñ espakitx ba esin txut esan, ia

“lapa” selan esaten da?

ai, lapie? lapie. Gosan e lapátán lapa-saltxi itxeko, esaten du guk

hemos cogido 3 lapas

iru lapa

caracolillo

maguridxue, bai, maguridxue. Arek e (sera) karakolillotxuk esta? Maguridxuek, deitxuten txagu, Bermion, al menos, bai

hemos cogido tres caracolillos

iru maguridxo

caracola de mar

³ Irutairu = hirurogeita hiru.

⁴ Bay idatziko dut eta ez bai, “baina” esan gura duela adierazteko.

⁵ arrañeken dioela uste dut, arrañek esaten hasi, arrañen esan gura gero, aldatu gura bidean, eta azkenean arrañeken esan.

caracola de mar? e.. estaipa selaku dan ba, entxuti dakot, (da) estaitx, oseake (olan lusengitis) esta?

“itxosoko karakola” ero esaten da? esu entzun ori?

estot entxun, esetu be estot itxen-da, (..) esin txut esan. Ori entxun dot, “itxosoko karakola”, oiñ estaipa señeri esaten txoyen, esu enteniten? Señeri deitxuten txoyen, estaitx

la ostra?

óstrie? e selan da? ostra- ostra.. ostrak, ostrak, bai

el mojóón?

musillek, musillie

he comido tres mojojones

ba iru musille dxan dot

2.A.1. Mundekan bardin, musillie

musillie, bai, bai, Bermion be bai

berberecho

berberecho? selan da ba? berberecho.. erderas selan da?

“márgola” entzun su?

margola?..

ero “márbola” ero? “márgola” esu entzun?

es-tot entxun, margola?.. Ori de..

estaitx ser dan baye, “berberecho” erderas

berberecho

eskueras “márgola” ero

iñois entxun dot “márgola” baye estaipa, ori berberecho bada

selan esango lekisu “las almejas”?

txirlek (esaten txagu), txirlek, esaten txagu. Oiñ e dis ba batzuk e, biriguetauek

bi-

biriguetauek, da beste batzuk txirlek, oiñ estaipa..

ta antzekutis ero selan?

e, txirlí da fiñaue, biriguetau da, e ordinaidxuaue, basatxan artxin dana, oseake bera be dxateko da, baye da ordinaidxu aragidxe, da merkiaue. Basatxan, Laidén-da ataraten da, basatxan. Da txirlí da fiñaue, (osea) gosuaue, esaten dauie, estaitx

suk esu dxan ori?

bai, txirlí bai, sarritxen dxan dot

da ori bestie?

béstie, esto dxan iñois. Baye esaten (dau) gosu dala a be. Da txirlin antxekue, baye txirli dana suridxe, au kolorie, bueno suridxe esta, au, au kolorie, ba besti da, au- au kolori, báltxaue, bai, ostantxien ba aragidxe ta bardin dxaten (da)

da selan esango lekisu “he comido tres almejas”?

iru txirlé dxan dot, edo iru musi- sera es, musilli, selan da? iru biriguetau dxan dot

erderas “navaja, solen”?

a bai, da estaitx e, navaja da, selan esaten txagu ba? Kutxillue, navaja(k esaten txagu gupe). Arek lusik esta? bai, bai bai, Laiden oten dis (bai) orrek, bai, orrek e bílbotarrak ónek dxan eitxen dauie, da, Bermion da ba arraintxeko, bueno (batzuk...)

esta dxaten Bermion ori?

es, bueno estaipa batzuk igual dxango dauie bay gitxi. Bai, bakitx selakutisen⁶, “nabajak” esaten txoye batzuk, oiñ euskeras, estaitx e selan dan

esango tzut neuk modu batera?

“muergue” entzun su?

muergue, bai, entxun dot

ori de muergue?

ai, estaitx ori bada, bay entxun dot ori, bai

da entzun su “eresie”?

eresie? es. Bay muergu bai

⁶ selakutisen = zelakoak diran.

da eresie orreri deitxuteko e ori navaja
(oneri), navajari?
esu entzun, eresie?
eresie estot entxun. Esango da seitxik guk e bss!
Navaja e beitu, orrek, nabajatis-da, estai(t ..)
nabajak esaten txagu
la sepia, sepia erderas
ai, sepia, sepia ser da? amorrotxa? es
es, pulpo esta ori?
bai, sepia ser da ba? sepia?.. ai, itxosapue?
rape esta ori?
bai, sepia ser da ba? txibidxie? Ai esta!
txibidxie, txibidxie, bai
olan esaten da Bermion?
bai, txibidxie
da selakutis orrepa?
orreties.. selan esplikekotxupa? Oseake dis
(o)lan, (ara) biribiltxuek, aulan. Daa dáko
asurre, atxiñen e gu gastetan, txikitxen eitxe-san
du a asurre, iltxen disenin kostara datos órrek
iltxen. Ustelduten disenien, uretan kostan, ba
asurre geratuten da, asurre da suri-suridxe, da
eitxe-san du kutxilluk-eta, ori plúmie, áregas⁷
sorrostu. (Da) garbi-garbi tinti kendu plumiri.
Beran asurre, bai, a txibidxin asurre. Da beste
batxuk e gausek itxeko, barkuk-eta itxeko, olan
bárko txikitxuk itxeko ta (o)lan
ta dxateko onaties onek e?
txibidxie? bai, gosu da, oseake, tximinoye lákue
baye ordinaidxuaue, aragidxe ba, gogortxuaue.
Au atxiñen usete-san da, e lebátxétákó,
karnatakó⁸, lebatxetako. Aulan kéndu asurre,
tírek egin, amun imintxeko, lebatxetako. (Da oin
useten dana) sardiñie
da selan esango lekisu “he comido tres
sepias”?
ba iru txibidxe dxan dot

⁷ áregas, azentuak galdegaia azpimarratzen du.

el calamar?
calamar e? tximinoye
he comido tres calamares?
iru tximinoin dxan dot
“la pota” erderas?
potax? selan esaten txagu guk?.. “potie” edo es,
selan esaten txagu? Txibidxi esta, tximinoye bes,
selan esaten txagu?.. Potie, potie edo, esaten
txagu, bai
esu esaten pótxie?
potxak, bai, pótxie, bai, pótxie. Astute okiñdxot,
potxak, bai
ori txibidxi laku edo selaku-
es, ori de tximinoye lakuek, olan da ba
ordinaidxu ori be. Ori (deu) itxosuen e, itxosun
kanpun ataraten da
obierna da tximinoye orduen?
bai, bai, tximinoye da gosuna, fiñena. Ori de ba,
pótxi da, ordinaidxuaue, gogorraue
da “he comido tres potas”?
ba iru pótxa dxan dot
el pulpo?
“pulpo” amorrotxa
hemos cogido tres pulpos?
ba iru amorrotx atrapa du
las quisquillas?
eskirie, esaten txagu. Oiñ eskireteus ba,
txikitxuauek, anditxuauek, bay eskirie
da “he comido tres quisquillas”?
iru eskire dxan dot
da entzun su eskire gorridxe?
bai
badau bat?
bai bai. Deus ba.. e eskire suridxe oten da, da
eskire gorridxe, bai, bai. Baye antxekuties, oin
kolorie, batxuties ba gorridxauek, da beste
batxuk (suris), ba antxeku da, bai. Da itxosoko

⁸ karnatakó dela uste dut.

eskiri da, geidxena ure da, estako emekoo,
ónetan mwéllitan da ronpeolasen da mwéllitan
da órretan ataraten dana, orretako ba mamín
gidxau, da itxosokue (da ba) urtxuaue.
Itxos(oko) kánpokue, urtxúaue, mamin gitxiau
dako

da “la gamba” selan esango lekisu?

auri estaipa, gánbie, guk *ganba(k)* deitxuten
txagu, bai. Oiñ e aunek, (edo) arrasterutakuk
dxakingo dauie, bueno estai nik dxakingo
badauie, guk *ganbak* deitxuten txagu

Mundekan bardin esaten da

bai, gánbie, da béstiek langostilluek

ser?

langostilluek, esaten txagu. (Orrek) txikitxuauek

*da “he comido tres”, selan esango lekisu
olako iru?*

iru langostillo dxan dot

eta bestiek?

ai ganbak? Iru gánba dxan dot

el bogavante?

bogavante, ño! Ori entxun dot, ori érderas da
esta?

erderas da

bai, ori entxun dot, da estaitx ser dan, da entxun
dot, bogavante..

andidxe da es?

es, entxuti dakot, da estaitx ser dan

langosti lakue esta? abakondue da ori?

es, abakondue, abakondue langosti laku da baye
beste kolore bat e, báltxaue

pentzaten dot ori dala erderas bogavante

a ori de?

pentzaten dot bayetz

esta esango, buey edo ori (esaten txagune)
karramarrue, seixik bat, batxuk esaten txoye
karramarro bateri, aulan “buey”, esaten txoye

eskueras be bai?

e euskeras entxun dot nik, oiñ erderas be esango
da igual “buey”

*bai, erderas be bai pentzaten dot esaten
dala*

da ori entxun dot, bogavante, ia ori espada!

bai, igual esango da ori

bogavante, entxunde dakot, da estaitx e euskeras
selan dan

pentzaten dot abakondue

abakondue ia bada. Guk abakondue, bai, esaten
txagu

hemos cogido tres?

iru abakondo atrapa du

la cigala?

sigala? selan esaten txagu ba? cigala,
langostillue? es... Cigala esta esango, cigala
andidxaue da esta langostillo baiño?

bai, andidxaue

ganbak edo, ganbak pentxaten dot, estaitx

esta esaten sigalie?

es es es, sigali esta esaten, ganbak, ganbi edo,
langostillo andidxe edo estaipa, estaipa, estaitx

la langosta?

langostie

hemos cogido tres langostas

iru langosta atrapa du

el centollo?

sentóllue

olan esaten da esta?

e? bai, Bermion bai, sentollu, oiñ ortik e,
Gipuskoan-da estaitx, baye Bermion, sentollue

Mundekan bardin esaten da

e? bai, Mundekatik Bermiora estau bentaja
andirik-eta

da “hemos cogido tres centollos”?

iru sentollo atrapa du

la nécora

nécora? nécora? nécora? selan da ba?.. Bermion
esaten dauie *nékoratan gues*, bai, nekoratan,

oseake “vamos a coger nécoras”, nekoratan gues. Oñ estaipa nékori bada, ni pentxaten dot nékori dala

Mundekan bai

2.A.2. Bermion be nékori esango da

hemos cogido tres nécoras

iru nékora atrapa du

cangrejo moruno entzun su erderas ori?

auri estaitx, cangrejo moruno?.. idearipes

entzun su eskueras kaskarratoye?

bai, kaskarratoye entxun dot, bai, selaku da ori langostillu laku da ori esta? txikitxue, baye estau balidxo dxateko

estaipa, cangrejo.. entzun eiñdxot baye estaitx

ori entxun dot, oñ esan sune baye..

Mundekan esaten tzoze kaskarratoye ta santiagito be bai, santiagitue

santiagitu es baye kaskarratoye bai, entxun dot, bai, ori entxun dot. Oñ, estaitx se- sereri esaten txoyen baye entxun eiñdxot⁹ ori kaskarratoye esaten

buey, cangrejo?

buey? ba estaipa, buey edo

Mundekan txangurrue

ai! bai!, txangurrue bai, (ori) entxun dot, oñ estai txangurru bada ori

Mundekan orreri deitxuten tzoze, buey esateko

txangurrue, ba ori esango da, seitxik-

txangurrue esaten da Bermion?

bai, bai baye, neuk esto dxakin (sereri) esaten txoyen, oseake entxun dot, txangurrue estais

baye, (neuk) estot dxakin e orreri bada edo.. sarritxen bai entxun dot

da “hemos cogido tres”?

iru txangurro atara du

el cangrejo común?

cangro?

cangrejo común?

cangrejo comun?...

Mundekan karramarrue

Bermion be bai karramarru laku bada karramarru esaten txoye baye, estaitx. Karramarru laku bada e? (Oñ) estaitx, órrek e itxosun dausenak órrek txikitxuek edo atxetan (da orrek)? bai karramarrue, esaten txoye Bermion be

da “hemos cogido tres”?

iru karramarro atrapa du

cangrejo corredor?

cangrejo corredor?.. etxut esango

sapaterue?.. sapaterue, esu entzun?

.. sapaterue, guk Bermion deitxuten txagu, arrain bateri, e.. bera arrañe da, aulan txikitxue da aulan, aulan e, aue dako txiki-txikitxu ta aulan, (a)lako biribiltxue, sapaterue

da esta, kangreju lakue esta orduen?

2.A.3. Bermion sapater(u) orreri deitxuten txagu, oñ estaipa

Mundekan esaten tzoze bateri infernuko karramarrue, bat-au karramarrue ta beste bat diferentie bueno antzeku esta baye, infernuko karramarrue, entzun su ori? igual Mundekaku esango da

estot entxun

los percebes?

porsébak, bai, porsebak. Gosan porsebatan! bai

da “he comido muchos percebes”?

ba porseba ásko dxan dot

⁹ dudan nago *entxun, eiñdxot*, komaz, transkribatu behar ote nukeen. Esanahia “oír ya he oído, sí he oído” da eta. Ohar berau egin behar nuen lehenengo artikuluan (Bermeoko arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa I) eta ez nuen egin.

Mundekan apurtxu bet diferente, bueno portzebak, bueno antzeku da esta

bueno estaipa, igual e guk Bermion txarto eitzen du.. (pronunsiñue) e? bai, bai, baye, estaipa, bada persebapada edo.. olan bada, estaitx

bueno Bermion modo batera esaten da ta Mundekan beste batera, bidxetaus ondo

.. guk e, arrain txikidxeri be, selan esaten txagu?.. iskurridxe, da mundekarrak selan deitxuten txoye?, *sorridxek*-edo. E, uretan oten dies, e, estai “planton” bada érderas edo estaitx, txiki-txikitxuek, bokartak bákarrik dxaten dau, dis txiki-txiki-txikitxuek

ser da ba?

da, dies ba, sorridente lakuek, udin oten da ori

ukusten da?

bai, baye ikusten da asko bádaus, aulan erdi gorrístute, uretan. (...) bokarta, esaten dauie, bokar-sasoyen ori badau asko, bokart asko dauela, da guk deitxuten txagu *iskurridxe*. Da mundekarrak deitxuten txoye, selan deitxuten txoye?.. Len esan dot, *sorridxe*-edo, itxosoko sorridente-edo. Oiñ estakigu are(pa)koye errasoye edo, Bermiokuna bada..

selan esango lekisu, olako asko badau

iskurridxe asko dago, bai

erderas se isen dako orrek, plancton ero?

“planton” edo pentxaten dot dala, pentxaten dot e? Enau seguru. Da, e, selan espliketoxupa? Itxosun kalmi dauenien, kalmie, bare, kalmie, itxosun ikusten da, aulan e, sastarrak ikustiles, gorrístasune, a dxaten dau bokartak eta sardiñiek, beste arrañek es. (Osea aunek) bokar txikidxek eta sardiñiek, áurrek dxaten dauie, esaten dauie ori asko dauenin ba bokarta, sasoye, kostera ona (esaten da), esaten dauie sarrak

esta esaten olan?

e oiñ estau kostera onik-eta. Oin gero ta eskasau deus e gausek

se isen dakoye antxoba kumek eta orrek?

guk andidxeri *bokarta* esaten txagu, da txikidxeri *antxoba kumie*, bai, a txiki-txikitxue

esta esaten txintxiñek?

txintxiñe be bai

ori de txintxiñe?

bai, bai, txintxiñe be bai. Batxuk e abe! txintxiñe da ori, beste batxuk antxoba kumie

ta suk selan esaten su?

txintxiñe be bai, atxiñe be esate-san da ori gidxau, atxiñeko sarrak (gidxau esate-san dauie) txintxiñe. Oin be esaten da esta? baye oiñ e en jeneral esaten da bokar-, antxoba txikidxe. Da besti da ba bokart andidxe, da antxoba txikitxue

da txintxiñe be bai

baye txintxiñe be bai, bai, sarri, (esaten da)

da txibidxie ta, bueno entzun su begiandidxe?

bai, bai, ori tximiñoye da, begiandidxe

ser da bardiñe, ero diferente ero?

es, ba andidxauecies, oseake iguala da, baye au-au sasoya- atarat-, bueno oiñ es, oiñ a- amaitxu de baye, akaba da, baye, ba pásan illin da béstien ori ataraten da setienbrien, otubrien, nobienbrien, or. Ya asten disenien egwaldi santarrak itxosu ta, ya bápestu itxen da, orretis ba tximinoyek, baye enbesde árek tximinoyek, orrek onak, gosuk dxateko, orrek txikitxuk eta orrek, ba, álakuek (aulako...), begiandidxek, librekuak, (..) tximinoi andidxek.. (Da) tximinoye bakisu semat andidxae, txarraue (da) dxateko. Bai aragidxe be dako ba gogorraue, tximinoye semat txikitxuaue ba gosua dxateko

da perloye arrañe da es?

perloye? bai, perloye da *kukutxe* esaten txagu guk. Oin deus: *kukutxe* baltxak, da, (a) esin txut

e, esplike selan, bai, ori arrastaku(..) arrañe da, arrastan ataraten dauie asko, kukutxe, “perlón”, deitxuten txoye. E deu kukutxe baltxa, da gorridxé, da, awé dako sapala ta gero (o)lan e bai kukutxe. Ondarrun *perloye* deitxuten txoye, guk Bermion *kukutxe*

perloye esue esaten?

es, guk *kukutxe*, bai, daus kukutx andidxek, txikidxek, enjeneral arrastan ataraten (da .. kukutxe), badaus andidxepe. Da deus gorridxek eta baltxak

da badau orren antzekue kólue?

kólue? estot entxun ba, kolue? kolue?

Mundekan esan dostie kolue, antzekue ero

esango da, estot entxun.. Orri¹⁰ bai, bai Ondarrun, da Bermion be bai batxuk *perloye* ta, da beste batxuk *kukutxe*, guk enjeneral kukutxe bermiotarrak. Oiñ e, arrastan (dabisenak) arek deitxuten txoye *kukutxe, perloye*

au esta arrañe baye ser da txiste?

txisté? txisté, gántxo bat, e, atune alaten saus, atune alaten nai simarroye, edosetako, ba andidxetiseles, ba txistegas (dxoten du, txiste gántxue), da pálo bat, da gero ba olan, burdín bet, gantxu, erdaldunek deitxuten txoye “gancho” da guk *txisté*

ta ibiltxen da oin be ori?

bai, bai. Se ori bi de ba simarroi andidxe igual eun kíllokue, eun killoku a altxaten basu.. e apaidxuas, ba espana.. ausí edo amu ausi edo fitxí ausi, ekarte su geldí-geldike geldí-geldike, da, andidxe bada ba txis-bígas, gison bi, dxo ta barrure

ta ori atune atrapateko bakarrik?

bai, atune, simarroyek, nai e duroye nai marraisue, oseake arrain andi bepator, txisteas (ekarten da)

andidxe da txiste?

bai.. bueno txistetako(s) ba.. olan nopera(k ba-) au alturie, metro ta erdi, oseake bárkotik ba uretara allegateko, bai, metro ta erdi, métro bi

estot ikusi iñois txiste

bai, dies e ol batxuk, e basotik ekarten da, da gero ba, olan, burdiñe olan gántxue, berari páluri pegata olan, da olan. Batxuk eitxen dauie ámuas, amo andi-, órrek amu- simarroitxeko ónek e motor txikixuk itxen dauie, ámugas, gallée sápaldu, gallé, galle bakisu ser dan? Gallé da, ámuk selan dakon e, aulan e púntetxu bet e, a da arrañe, dxosten dauenien, es eskapateko, átxes eitxen badau ba engantxeta (ote-), gallé. Ba a eitxen txoye sápaldu, da areas eitxen dauie txiste. (Bay ba) guk es, guk tallerrien, eruten dis e egurrek, ogei-edo, ogei-edo, da tallerrin baríllekas, barille métxukas, eitxen dauie púnti sorrostu, da (au)lan

orduén seuek eitxen sue ori?

es, tallerrien, tallerrien, bai

gero erosi itxen da?

bai, gero erosi itxen da, bai, amar peseta, bueno atxiñen, oin ya amar pesetaixik gaur estau eser, gaur karamelo bapestau, gaur esango da igual ogei ogorloko edo baxotxa-edo, bai, oten dis gisonak a ello dediketen disenak. (Au bota-), atunetie sasoy datorrenien, batxuk, arraintxalipe bai e? Arraintxalipe olan jubileta dausenak, dutxus aldira pasitan, edo ekarten txue, egúrrek, órrek páluek, políttek, gero tallerrera eruen e esegun bapako edo tallerrin imiñí, da gero saldu, baporari bai, ori txe arraspape bai

sertzuties orrek?

arráspaties, amuri bakisu ser dan?

es

¹⁰ *ori*-ren lapsusa

amuri (d)a, atunetako kasán atrapateko.. fitxie,
gero dator ámue, da gero lastúkas, lastukas
itxen da amurié

a bai entzun dot

entxungo sun

*Lekeitxon-eta etzoye esaten orreri malutie
ero?*

.. bai, Lekeitxon beste klase-

suridxe da esta?

**bai, e da oridxe ta suridxe. Atxiñen eitze-san da..
e lastuek e, orridxe selan dakoye arto-garau(ek)
selan okitxen dau e.. selan dako isena arek?**

bisarrak ero

**es, bisarraparik es, hojas de maíz, orrídxe e,
órrek seranak, arto garauenak, dis alako
orridxe. Arek (eitxe-san) die, imiñi politxo,
Bermion okin (banauen erakutxi ingo txuten),
Bermion dakot-eta**

etzin dakosu ori?

**bai. Dies, imintxen dis poli-politxo, ámue
txárpie, da imintxen da olan politxo ámue, da
gero lejiatakie, neskatillek eitze-san dauie,
orrek orridxe, sati batxuk lejiatan imiñi**

suritxuteko?

**suritxuteko. A oridxe imintxen da lélau da gero
a suridxe gánetik, (auri da) lejiata, da gero arraspi
da, óltxu bet, a be geuk eitze-san du,
arraintxaliek, óltxu bet, órrotxak, sartunde,
olari, gero a, in bi de, orrastu, da eitzen da.. ba,
selan esplikekotxupa? Orridxe esan duna len,
orrastuten-orrastuten geratuten da, ba, aulan
aridxeles, e? Ulertute su esta? Entenite su?
Aridxeles, da a da amurie. A da ba kasán, atune
atrapateko ta simarroyepe bai (txe)**

Mundekan be esaten da ori

**bai, amurie, bai. Bermion on bagarisen
erakutxiko txuten. Emen esto pentxaten ongo
danik, itxaron apurtxu bet ia /stop/ Bermion bai,
beste etxin bai, (bakot an), palasan dakot,**

**palasié, palasa bat esaten da olan e kajatxu bet,
an gordeteko fitxek eta apaidxuk eta danak**

olako bi selan esaten da, amudie ba..

amure bi

ori entzun dot baye

bai bai, amuri da. Oiñ, oiñ esta useten ori

esta useten ori geidxau?

**bai, useten da baye oin lastodune es, oin deus e,
onek papel plástikuek? ikusko sun (a)lan e,
oridxe sintxetxuek, da surídxe. Árepe itxen
dies, (d)a, berales, orrastu, da geratuten da
arixute. Eskobatxu txikitxules, geratuten da.
Oiñ oseake, oiñ esta eitzen ee lengo lastukas-da.
Áuntxeko papelesko lastukas eitzen da**

orain erosi eingo dauie es?

**seiñ? bai, ori papela erosi itxen da, bai. Ori
Takonenien, ferreteidxetan da arrañek, ámuk
eta saltxin daue lekun saltxin da ori papela,
oridxe ta suridxe. Lélaui imintxen da oridxe ta
gero suridxe gánetik. Da ori itxen da arraspías
órrastu, da gero tútuna, orrastukeran aulan, ba
aridxe, aridxe esatiles, da gero itxen da amu-**

2.B.

da ori atunetan dxuteko bakarrik da?

**ba atunetan da simarroitxen, kasán, gidxau
esetako bes.. Oin bakisu, oin atune atrapaten da,
e kañaberigas, kasán (atrapaten dauie) onek
motor txikidxe, baye andidxe, Bermioko
andidxe, (ba orrek atrapaten dauie ba) seragas,
karnada txikitxu imiñi da masi egin,
kañaberakas**

masidxe ser da?

**masidxe da ba, érderas “cebo”, esatiles, masidxe
erderas rabas da ori?**

es. Masidxe, ba masidxe esaten txagu (guk)-

uretara botaten dana es?

eso es!

etxaten dana

eso es

eta ser etxaten da ba? ser etxaten da uretara?

ba, atunetan kañaberias básaus, sardiñe bisidxe, nai antxoba kumie, nai txintxiñe ori, bisirik e? sedasotik, atrapa, da gison bat-eu e, bisidxe etxaten. Da gero beste batzuk txifárrakas, da beste batzuk imintxen dauie amun, bisidxe, kañaberias, atunetatos ba, arek dxaten

ta ori de masidxe?

bai. (...) masidxe be esaten txagu, ba, kañaberias esus arraintxen ronpeolasera? Atxiñen erute-san da, e, gaur be bai, edo igual e, iru-lau txitxarro, burúek, sapaldu-sapaldu, olan sapalduu arri bategas edo seusegas, da masidxe, bai. Da atxiñen, masidxe deitxute-san txagu, e, badire dxute-san disenin txitxarro, eitxe-san da ori bokartá, atxiñen eitxe-san da bokarta alójatan imiñi, gatxa emonda. A eitxe-san da masidxe, masitxu, atxiñen ba e sérakas, selan deitxute-san txoye? esta-, astute dakot e? Másu- másuek. Gero ba, makinillek etor sien, aregas ba txitxarruk-eta (atrapateko), (areri) esaten txagu masidxe

da orain ya esta eitxen ori?

(ori) esta-, oiñ es, oiñ ártitau andidxe eta.. oin radarragas, radarrak márkaten dauenien, bóta

ser da amuskidxe?

amuskidxe da.. atxiñen palangri ote-san da, lelau e txikoteskue, txikota, gero etor da fitxie, auntzek, auntzek urte gitxi, ostantxin neu be ibil nai e, ba amuskidxe da, karnadie, e.. botakarra, botakarra nai a-, akuli laku da, botakarra atxiñen, botakarra (etorte)-san da, da eitxe-san da- eitxe-san du tátuk, beseuteko, nai e papardotako, tátotxuk, tátuk (o)lan, bera botakarra esta onenbesteku? akuli laku da, ebai tátú-tátú-tátuek, a, a plamie, ámue(n), a da amuskidxe, amuski

amun imintxen dana?

bai. A tátue, berana botaka(rran) satidxe, aragidxe, á da amuskidxe. Geuk al menos (aurreri) deitxute-san txagu Bermion e? Oiñ-

olako asko, hemos puesto mucho?

ba amuski asko

arrain baten isena da burutue?

burutue? Bai, entxun dot ori... Bai, esango da, da estaitx selako arrañe dan baye, burutue (ori) entxun dot, pentxaten dot. Estaitx selako arrañe dan baye entxun dot

ser da entzerie, entzerak?

ai entxera!... Bermion on (...), Bermion on bágaiñen

etzin dakosu?

e? etxin dakotes, da fitxie esta? Da ámue, da entxera da.. atxiñen eitxe-san dis e koblak, atxiñen txikotagas, potxeragas, deitxute-san txagu potxera, bai, da gero mádrrie subille, ba oin dana da fitxie, mádrrie fitxie, da koblak be fitxie. Ba entxera da, ámu suéltun deu, da ein bi de, fitxén imiñi, imintxen da au e... /stop/ Bermion- Bermion dakotes orrek danak, (a) espliketeko seuri selan dan. Áu de fitxie esta?..

es ebai e

bai, setako?... Bermion onek danatakotes baye...

dxuten sara arraintxen e..

bai, semias dxute-san nai, (aurregas) txikidxegas dxuten nai, semiri gustaten dxatxo arraintxen dxutie.. Au de, imingu ba, au fitxi esatiles imingu esta? au, a ámue eitxen da aulan, bat.. bi.. ámetik sartxin da palie, ámuna, e? Emetik, da gero, istutu, e? ámu- ámu lotxin da ba amen. Áu de entxerie, áu de murtxillie, au, au de, au de entxerie, bai. (Olan) ebaitxen da.. e? jolin! Da emen du ámue, entxerata, da au de kóblie, da gero au kóblie due.. áu de mádrrie ba kóbli due, áulan.. áulan.. bay lusiau au baiño. Emen dako murtxilletxu bet, murtxilletxu bet es korriteko,

es korriteko, (au) brankabuelti emon, da da (aulan), au de mádrrie ta au de kóblie, emén-, emén ámue, baye au bakisu lusie, au de ba seuk ikusteko ein txu(tena aulan), baye oingo lebatxetako oten da aulan, bai, beseuteko, beseuteko.. ámetik eta aunarteku(ek), baye lebatxetako, brása bat, brasa ta erdi

badau bat iru brankabueltagas eitxen dana ero?

brankabuelti au de

iru buelta

bai, iru buelta be emoten da, bai, bai, segun, noperak-u dauen beste, bai, bai

entzera pater-nosterra estau bat?

e auri estaitx, auri etxut (esango).. estaitx

2.B.1. Mundekan ori

a bueno esango da, estaitx, estot entxun ori, bai, esango da

murtzillie da orduen esta?

bueno, murtxillie, murtxillie au de, murtxillie, bueno murtxille(k) klase askotakuteus, au de murtxille bat, murtxilleteus ba kláse askotakuek

ori de entzera esta?

es, entxera da, len esan txutena, len ein txutena, entxera da, au, au buélta bi emon, ámu sártun, tiritu, gogor, istu-istu, nai iru buelta, nai buelta bi, jeneral de arrain txikitxeko buélta bi, arraiñ andidxe bada, iru buélta. Lebatxetako-ta buéltaa bi, emoten txu(e), istutu ondo, ebai púntetxue, da gero mádrera du au. Emén du ámue, emén mádrri deitxuten txagu ba, au, esatiles e palangrin e mádrrie, au de kóblie. Da au de entxerie, da onetis murtxillek, gero murtxilleteus ba kláse askotakuek, brankabueltak, da klase askotako murtxilleteus

olako bi, entzera-

entxera bi

esateko erizo de mar?

erizo de mar? *Erisue* esaten txagu guk, “erizo” esta ori, isarra laku edo, e?

pintxuk dak-

pintxu(t)akosena, bai, bai, erizo

2.B.2. Mundekan esaten da tinterue

tinterue?.. Estot entxun

da eskimarrie?

.. entxun dot da estaitx ser dan, eskamadi esta esango?

es beste bat, eskimarrie

a!, seixik eskamadi da.. bueno!, eskamadi esta arrañe e?

ser da?

eskamadie, eskamadie deitxute-san txagu geuk atxiñen, arrañe ataraten sunien, en jeneral sardiñie, edo bokarta edo antxogie, sakuen dakasu gora, da arrañe daueles gero ta istuau, gero ta istuau, ba eskamik eskapaten txo, da ikusten da itxosue dana eskamie, enbarkaten sausela salaborduas

ori de-

geuk eska-, oiñ arrañen isen bat bada¹¹ estaipa, esto pentxaten nik, estaitx

da arrain baten isena da gaidxoye?

a bai, galdxoyé, bai, bai, galdxoye, galdxoye, bai, bai, ori bai, estot esetuten baye arrañe jolin, galdxoye da, galdxoye ataraten da asko txilipitxerotan sausenien, da oridxe, pentxaten dot a arrañe dala, pentxaten dot e? Enau fij(o), oridxe ta-

suk esu atara ori?

es, bay pentxaten dot (ori), pentxaten dot e? Enau fijo, galdxoye, bai

olako iru?

iru galdxoi

¹¹ *bat bada* edo *bat pada* dio igual, pausa moduko bat egiten du eta.

pececillo de río, bermejuela, ur dultzetakue da baye, bermejuela entzun su erderas? da kaskallue?

kaskallu entzun dot, da estaitx ser dan. Kaskallu entzun dot, mundekarrak kaskallu deitxuten txoye, mundekarrak eta bermiotarrape bai batxuk, kaskallu kaskallue

ur dultzetakue e?

a ur (dultxetaku) da?

itxosokue esta e?

.. da entzun dot, (oiñ) estaitx ser dan. Da entzun dot, da estaitx ser dan

da kurrikana entzun su?

kurrikana? Arraño da?

txikota

a, bai, kurrukana, kurrukana, kurrukana

kurrukana suek?

bai, geuk kurrukana Bermion

txikota da esta?

atxiñeko (da-), txikota au e-, au baiño loditxuau apur bet. Au baiño apur bet, au da semat? au semateku esango da? eun da ogeikue? Bai, eun da ogeikue, ba eun da berrogeiku edo, kurrukana. Ba atxiñen e, gaur fitxias eitzen da atunetako apaidxu(k baye) atxiñe itxe-san da, txikotagas, kurrukana, da, gero sokalie, sokalie (ya da) méyaue, bueno datos e amabosteku, amasortxik(ue aulan), (otabiku..) numerasiñ(okutan etorten dis). Da kurrukana da, ya loditxuaue, da beste bateri, lodidxena ya, lodidxena: memená, da (aune- au lodidxeratie), memena, ori da ya askanetan imintxen dana, memena, gero due kurrukana, da gero fintxuauk

da ser atrapateko ibiltxen dis orrek?

ori, atune, kasan atarateko. Ba oin fitxi ibiltxen dana, ba atxiñen auri apaidxue

ta orain estis ibiltxen orrek?

orrek es, oiñ e, oin dana ibiltxen da au- au fitxie, karretan imiñi, (au lodidxe) aulakue, au baiño apur bet metxuau alakue, da gero púnten, púnten, métxuaue. Aulan amar brasa edo áulan métxuaue, gero amurik-, amurien fitxi be, ba sei brasa edo, metxuau euneku-edo, larogeiku be bai

selan esango lekisu orduen dos cuerdas,

kurru-

(orrena) ba, róllo bi

len esan sun ori-

kurrukana? e kurrukana da, selan espliekotxupa?

kurrukan bi esaten da edo es?

es, kurrukan bi txarto esanda dau... Oiñ e ba estaipa, erosten dxuteko ba, esa lei e: bueno, kurrukanak ekarri piesa bi edo, bai, edo memena ekarri piesa bat. Esati- seitxik e atxiñen ba patroye dxute-san da, apaidxuk preparateko dxute-san da kordeleidxera, artun nótie, bueno ein bi du ba onenbeste apaidxo, igeskuk estai balidxó, bueno danak ingu barridxek, berak (ekarte)-san dau e listie, da bueno, memena áunenbeste, piesa, piesatan etorte-san da. Kurrukala, kurrukana ba áunenbeste, sokalie, ba amabikue áunenbeste, amabosteku aunenbeste ta aulan. Sokali de ya ba meyau(e aulaku aunen) antxekue. Baye dana txikota

da soidxie?

a! sóidxie, bai. Sóidxi da.. e, apaidxu alateko, ba atxiñen imintxe-san da, e, lelau lebatxetako usete-san da ori, atxiñen, atxiñe-atxiñen, sarrak, arétxá, aretxa es, aretxa es, aretxa “roble” da esta? bai, aretxa es, beste... (selan okitxe-san dau isena ba?).. da egur laban-labana, errekatán e batxin da, e, éjje, éjje, órrek kárruek aldianunak, selan okitxe-san dauie? Selan? burru-.. selan dakoye arek isena? kárruek e,

aldianuk okitxen dauina, atxiñeko karruk
aldianunak, esetu su?

es

dies e, egurresko kárruek dies, basutan
ibiltzeko, gero éjiek e burbillek, éji erute-san
dau berori auri soidxin egurre

a egurre, egurre da

egurre da, eji be. (Eitxe-san da) gitxi gastá,
atarate (..) iii, iiiii, iii, alditan, suburdidxe

suburdidxe?

suburdidxe es, suburdidxe da kárrue, deitxute-
san txoye eurek aldianuek, suburdidxe. Da a
éjje, á da, sóidxin mateidxala, es gastateko, selan
esplikekotxupa? Apaidxue atxiñen aulan ibiltxe-
san da, lebatxetan, sarrak esta? bueno sarrak
eta gastiek

atzera ta-

aulan, bai aulan, eskugas (igual). E lebatxetan
atxiñen ba bana-banaka ibiltxe san da-ta. Da ori
soidxi armate-san da kaela barkuen, kaela
bakisu ser dan barkuna esta?

es

au de bárkue, áu de bárkue, edo txalupi edo ser
dan, e au de kaela, kánpoko., au kaelak, oseake
au de proa- sera korosta, da (aulan, aulan)
estator? ba au de kaela, ba ni bánau emén
arraintxen, nire apaidxuk au rosaten deu. Da,
atxiñen eitxe-san dauie kordélakas, sarrak, tínti
emon da dxaboten-da. Au rosa esketero, e
kordela eitxen da, gastá, da geróo fálta, apurtu,
fálta. Da orretako imintxen da sóidxie

klaro es apurtuteko es?

eso es! Amen imiñi soidxi kaelan, da apaidxu
(ibiltxe-san da), ámetik áulan, e? Ulertute su?

ol bat da orduen?

eso es, ol bat-a, ol bat, baye, aulan e... da ol bat,
e aulan dxanda, amén e silló bi, txikot (...) da
emén beste bi, da au dxanda, akoplateko aulan.
Bera egurre aulan esta? baye dxanda, oseake

aulan, askorias kendute.. e? ulertute su esta?
Baye olaku (es e? lusiaue, olan), au tamañue

andidxe?

bai, sóidxie. Au dxan, aulan, au de egurre, esta?
Egurre (au)lan, da au dxaten, dxaten aulan
dxaten, askorias

erditxik edo?

e? danien, púntetik púntera. Da gero au,
geratuten da, au dxanda daueles aulan, (aulan
tak imiñi aulan), e? kaelin amarra, da ámen
dabil apaidxue, á da, sóidxie. Gero, etor san,
gero denporias bakisu ba, modernuaue,
modernuaue es, pálo bategas aulan, da, en bez
de- egurresku bai, baye ojalateidxen eiñdxe,
dxiñegas, buéltan politxo dxiñe imiñdxe, e? Olan
e soldita, estañugas, dxiñe, da imintxe-san da
aulan pálo bategas, aulan. Au de bárkue, ámen
áulan, da ámen áulan, ametik alate-san da
apaidxue, beseutekue ta papardotako apaidxue
ta (au)lan

orreri deitxuten tzoye-

sóidxie

orain be bai?

bai, len be bai

orreri be?

bai, bai. Bueno oiñ esta useten baye, oiñ esta
useten. Da áuri de sóidxie. Atxiñen ba
egurreskue, labana, selan-, berak egurrek selan
dako isena? miñe(n) punten dakot, edxast
akordaten.. total da egur ona, okalitu esta,
okalitu laku da

egur gogorra?

bai, egur gogorra da, total da gogorra ta ona.
Okalitu es, selan da ba? leisarra? es. Leisarra?..
Álako bat-a, laisarra edo álako bat-a, eurek
aldianuk deitxuten- txoyen (..)

aldianun berbi esta?

bai, bai, aldianun berbie. Egurra total da ona,
suridxe-suridxe, da estau márkaten esebe,

apaidxu dabill an, da márka be esebe-stau eitzen. Da suburdidzek, len esan txute-

esta gastaten

esta gastaten, da suburdidzek, órrek kárruek atxiñen aldianuk (ibiltxe-san disena), menditxik-eta? á dakoye, auri egurre, erdidxen e, sera.. edxast akordaten isena.. Edxast akordaten

da tertzak?

tertxaties, ba auri, potxeras eitzen dana, selan esango txupa? Selan esplikekotxupa?

beseutan dxuteko esta?

bai, beseuten da papardotan (dxuteko). Len esan txutena, au de mádríe, au... *-badoa-* ba au de potxera, esta? Au aridxe da baye, au laku esate-san da atxiñen potxera, au, au baiño apur bet loditxuaue. (Onegas) eitze-san da, eitze-san du, aurkí bet, bánko bat, aurkidxe, geuk eiñdxe oleskue, barille bat burdiñeskue, sartun aulan, (a)lako barille bat, da entxera, e, amuk artun.. aulan, amu imiñi, sartun pali ametik-ametik, ra!, ébai, au ámue ámen barillen sartun, baye lelau, sartun órduko, au imiñdxot amu emen esta? e? Au de.. potxera dakot amen, (eitze-san du olan) bat, áuntxe sartun ámue, an barillen, márkata dakoteles distantxidxe, e? Au distantxidxe beti dakoteles, au, au distantxidxe, beseuteko nai papardotako e? au, (...), márka, imiñi amue, tak!, ébai, ostabere sartun amu amen barillen, da ostabere, amu bueltan, au de entxeratie, e? Ulertute su? Entenite su?

bueno ori ukusi-

bai ba! Ba auri.. E, aurki bet, bánko bat, barille bat, burdiñesku au barille klasie, baye altotxu(au) apur bet, sartun, da gero emén ámu imiñi, ámuk suéltun deus, paketan, sueltun, beseuteku nai papardota(kue). Imiñi amen, olan, sartun ámetik, nai ámetik, da ra! istutu, istutu firme, ébai kutxilluas, kutxillu okin bisu eskutan, emén, aulan, listo, ebai au púntie, da

gero artxin su aulan, bat, bi, da ra! engantxe ámen. Ámen dakoteles márkata, aurkidxe da yau, márkata dakoteles, poco más o menos, beti, danak urteteko igualak, antxekuek. Ostabere (imintxen dot) ámue, istutu, ébai, ártun ámu ostabere, gero ártun buélti ta ostabere imiñi, sártun ámue, ébai, ártu(n) ostabere ta aulan, da danak esan bi dauie, antxekuek. Antxekuk es, igualak, seixik amen dakot ni márkie. Da gero onetues, onetis ba aulan, imingu bat, auneties.. Oneties ba, entxerata dausenak, emen púnten dakoye ámue, da onetis e ba igwalak, igwalak esan bi dauie.. Emén dakoye ámue, emén púnten itxen da, ónetan murtxilletxu emon.. (O)lan murtxilletxu bet, (o)lan, danai e? Onek ein bi dis asko, (se-) etxada batetarue eun da berrogei amo, eun da ogei, eun de otamar

lusiek dies es?

bai, segun.. Gero dau, au de subille, au ingiru(-), au baiño apur be metxutxuaue, (alakue), suridxe, e?

subille esaten da?

subille. Atxiñen

tertza-subille esaten da?

bai, bai, subille.. Eitze-san du, au de ámue, emén murtxillek emonda, gero, (au)lan... (a)men, listo, istutu, da listo! Da au, amen sartun, barille baten. Da au béste bat, klaro olan esiñdxe esplike, au beste barille baten, da ostabere áune les, da aulan. Dxo.. da olan ba eun da berrogeirarte. Gero eun da berrogei, eun da irurogei, segun. Ori noberak e gu dauena da. En jeneral patroyek esaten txu: bueno! nik gu dot ba eun da otamar, a poder ser. Patroyek emoten txo medidie, subille, dxoko sue, ámen mádren, subillan, ba au, bentajie. Da gero geratuten da, onek itxen dies, e sératan sartun, selan da? sóidxi es, pálotxuek, pálo bátxutan. Selan dakoye isena ba arek paluk?.. Sotxak, sotxetan.

Mutillek dxute-san dis mendire sotxetan,
sotxatis álako pálotxuek

txikitxuek?

txikitxuek, bai. Alako barilletxuek, arek itxen
dies, ámuek entxera, amue (aulan) dauena..
estakoteles emen ámue, úrrengotan Bermiora
satosenien, Bermion ingo txut. Entxera, amu da
aulan, da gallé dakoles, aulan eitxen da,
geratuten da aulan, politxo geratuten da. Da
amu sartun (an). Amu (sartxi- sartxin da) lotxin
da tertxie, da auri de tertxie

tertzie da ori?

bai. Ya iñdxe, konpleto. Oseake ya tertxie, emén
punten darues óllauek

ollauek?

óllaue

sertzuties orrek?

óllaue da alkar lantxateko, seixik etxa-, eun da
berrogei tertxá-ta etxa bi dies. Da onetis óllauek,
dus olan... óllaue. Onen aldín e luse, au de ba
seuk ikusteko

murtzillie da?

bai, murtxille bat, da bi. Onen aldien lusie.
Ollaue, álako óllaue lusie. Onetus gero alkar
lantxata. Itxosun gausenien, plamiten da,
krielién, tátukas, (au) karnadias, da kri- kriela
da, álako ol bat, kriela. Plamiten da an, óllaue
imin bi de atxeko mandan bat ámen da beste
bat, da gero amaitxuten danien kriela, kriela da
tertxa bi, tertxa bi plamita, kriela, listo. Gero
itxosora gusenien, au safa bi de, da imintxen su
táblan, tábla luse baten krielak, tertxak. Da
alkarrerri, óllautati txiko- serak emoten da gero
an du trankerotik, étxaten. Bermion bagengos
esplike(ko lekitxut) emén estakot erremintxerik
espliketeko

orrek gausek etzien dakosus?

bai, bueno sóidxi ta orrek es, baye dakot e ba,
onek fitxek, ámuek eta dxakitxeko entxeri ser
dan da orrek gausek

da ser da tragola?

tragola? tragola da.. esu ikusi arraintxen
dusenak selan batxin dauie- apaidxue? Óltxu
baten, nai e kórtxo-, kórtxotxue, olan. Olan e
kórtxue aulan, (au)lan, nai e tabla(-ta) nai óltxu
bet, áuri de tragola

apaidxue batziko?

a da apaidxu batziko. (Baye) tragola esaten da
ba segun selako apaidxo, apaidxo txikitxu bada
tragól txikitxue, apaidxo andidxe bada, atxiñen
lebasaliek, au batziko álako tragola, olan
listoitxu bigas aulan, da (an) batziko. Apaidxu
batziko

*orain ibiltxen dies orrek, tragolak, tertzak
eta..*

e oiñ es, oiñ es. Orain ibiltxen da, ai, selan da?
Piedraa, ori, selan da? piedrabolie. Da tertxiles,
baye beste klase batera. Da enbezde oin dana
fitxie, fiñae. Atxiñen ba txikota, kurrukanak
eta (edo), potxerak-eta, oin ba danaa, fitxie, fiñé

nois arte ibil sin orrek e?

orrek?

nois kendu dis orrek?

orrek asko

tertzak-eta

e ba abe! Urte asko, bai. Tuntuisek-eta, tuntuisse
ba(da)kisu ser dan?

es, ser da? semat berba dausen

bai, tuntuisse da búdxe bat, “una boya”,
erdaldunek “boya” deitxuten txoye, da ba..

budxe klase bat?

búdxe bat, bai, e atxiñen ojalateidxen eitxe-san
da. Atxiñen ojalateidxen eitxe-san da politxe.
Agarralekue, a da kordela batziko. A da ba,
patroyetiño: *gaur e larogei brasan étxaku.*
Errekaladue, larogei brasa gu txu emon, uren

ganetik, berarte, arridzek imiñi, larogei brasa kordelin piesá bat, larogei brasa da piesa bat, an itxen da tuntuisepatun.. e ba, piesa ta erdi gu deu, kordél gidxau imin bi de tuntuise(n), (ondorau) dxuteko

ta ori be galdu de?

e? ba orrek galdu dies, orrek atxiñekuties. Ba oiñ estau, oiñ e piedrabolán, lebatxetan. Oiñ onduen etxaten da, oiñ estau, budxepadeus baye.. atxiñeko tuntuise(n)-eta ya esta useten. Oin dana da fitxie, da..

asko kanbidxe da esta?

bai, bai. Bueno oiñ estau papardoripe-ta

es?

e? esteu! Baye atxiñe papardo asko ote-san da. A akaba da, esta ikusten, beseue be bápestu delakon, así es ke!

eskastu eiñdxies errasa asko es?

bai, (da estaitx), (au) arrastie. Da batxutiñoie au piedrabolie txárraue dala arrasti baiño

bai?

bai. Au piedrabolí dala ba, estaipa txarraue. (Seitxik) onek arrastero gustidzek Ondarrukuek, arrastan estabiltxesanak danatabiltxes piedrabolán. Piedrabolí da ba auri, esan txutena fitxekas, da etxaten daue bakotxak sei mille ámo, saspi mille ámo. Segun, bai. Da gero asko

lengunin esastahun berba bat, estau disionaidxun da, arrain bet dala, buru dako andidxaue da totuaue, totuaue, ser da totuaue?

totuaue? ai, totuaue ser dan? totuaue guk esaten txagu ba.. laburraue, laburraue, e ori gison totu da, ba gison txikitxu da baye¹²-

¹² baina potolotxoa.